

Merktaritze elektronikoa, hala enpresetan, nola zifra ekonomikoetan, 2013an ere gora egin du Euskal AEn

Euskal enpresen % 21,6k merktaritze elektronikoa baliatu zuen; alegia, 2012an baino % 1,9 gehiagok

Goranzko joerari eusten dio merktaritze elektronikoa Euskadin. Joera hori nabarmenagoa da zifra ekonomikoetan; alegia, eurotan, baliatzen duten enpresen ehunekoan baino, Eustatek eginiko datuen arabera. Hala, enpresen % 21,6k merktaritze elektronikoa baliatu zuen 2013an, iaz baino % 1,9 gehiagok. Sarearen edo bestelako sistema elektronikoen bidez (posta elektronikoa edo datu elektronikoen elkartrukea, kasu) sortutako negozio-bolumena 11.072,3 milioi eurokoa izan zen, salmenta elektronikoei dagokienez. Egindako erosketei dagokienez, negozio-bolumena 8.090,8 milioi eurokoa izan zen.

Iazko zifren aldean, merktaritze elektronikoen bidezko salmentak % 3,5 igo ziren Euskal AEko enpresetan eta % 12,3, aldiz, sistema horren beraren bidez egindako erosketak.

1. taula: Merktaritze elektronikoa bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2012	2013	%	2012	2013	%
Euskal AE	7.207,6	8.090,8	12,3	10.699,2	11.072,3	3,5
Lurralde historikoa						
Araba/Álava	1.084,6	1.337,6	23,3	3.621,0	3.561,2	-1,7
Bizkaia	3.906,3	4.201,7	7,6	3.794,6	3.968,2	4,6
Gipuzkoa	2.216,7	2.551,5	15,1	3.283,6	3.542,9	7,9
Enplegu-geruza						
0 - 9	2.082,9	2.610,0	25,3	2.067,2	2.157,1	4,3
≥ 10	5.124,7	5.480,8	6,9	8.632,0	8.915,2	3,3

(*) Euroak, milioikotan

Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Lurralde historikoa, hiruretan oso antzekoak dira ehunekoak: Bizkaikoa da ehunekoetan handiena, Euskal AEko % 35,8 biltzen du. Gero datoz Araba (% 32,2) eta Gipuzkoa (% 32), bien artean ia alderik ez dagoela. Erosketei dagokienez, aldeak handiagoak dira 2013an: Bizkaian egin dira EAEko erosketak elektronikoen guztien % 51, Gipuzkoan % 31,5 eta Araban % 16,5.

Araban hazi dira gehien erosketak elektronikoen 2013an: % 23,3. Era berean, salmentak jaitsi diren lurralde bakarra izan da: -% 1,7. Gipuzkoa da, bestalde, salmentak gehien hazi diren lurraldea: % 7,9. Halaber, erosketek nabarmen egin dute gora, % 15,1. Bizkaian, berriz, salmentak % 7,6 hazi dira, eta salmenta elektronikoen % 4,6.

Establezimenduen tamainari erreparatuta, merkataritza elektronikoa diru gehien mugitzen dutenak 10 langile edo gehiagokoak dira: salmenten % 80,5 eta erosketen % 67,7 barne hartzen dituzte. Hala ere, establezimendu txikiak dira, 10 langile baino gutxiagokoak, gehien hazi direnak azken urte honetan, batez ere, erosketetan (% 25,3).

Merkataritza elektronikoa parte hartzen duten EAEko enpresen ehunekoari dagokionez, % 1,9 hazi dira 2013an. Hala, egun, % 21,6 izatera iritsi dira. Kopuru hori, nagusiki, erosketak egiten dituzten enpresei zor zaio (% 19,7), gutxiago, salmentak egiten dituztenei (% 5,2).

Agerikoa da, halaber, zifra ekonomikoei dagokienez, salmentak erosketei gailentzen zaizkien arren, bitarteko elektronikoen bidez erosketak egiten dituen enpresa-kopurua (% 19,7) saltzen dutenena baino handiagoa dela (% 5,2).

2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira												
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Salerosketa elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	15,0	14,9	15,1	17,3	19,7	21,6
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	13,9	13,8	14,2	16,1	18,0	19,7
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	3,4	3,4	3,9	4,1	4,6	5,2
Erosketen gaineko (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	22,6	24,9	28,1	30,8	33,7	29,4
Salmenten gaineko (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	23,1	26,9	32,5	38,6	39,3	36,6	35,9
10 langile edo gehiago													
Salerosketa elektronikoa	6,4	10,0	10,9	13,6	19,5	20,4	24,0	22,2	23,7	23,1	24,9	27,7	27,5
Erosketak	5,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4	19,1	20,2	20,3	21,4	23,6	23,4
Salmentak	1,8	2,8	3,7	4,2	5,1	6,4	7,8	8,0	8,0	8,5	9,8	10,4	10,0
Erosketen gaineko (*)	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8	15,3	20,3	24,6	30,8	33,7	27,0
Salmenten gaineko (*)	12,7	13,4	15,5	15,0	19,4	21,7	31,5	28,6	34,2	38,4	40,9	42,8	36,2


(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %

Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI) Enpresak

Kalkuluen arabera, 35.700 dira Euskadin merkataritza elektronikoa baliatzen duten establezimenduak. Prozedura horren bidez egindako erosketak erosketa guztien % 29,4 dira; salmentak, berriz, salmenta guztien % 35,9.

Kopuru horiek bestelakoak dira enpresen tamaina aintzat hartuz gero. Hala, merkataritza elektronikoa baliatzen duten 10 langile edo gehiagoko enpresak % 27,5 dira, iaz baino % 0,2 gutxiago. Segmentu horretan ere handiagoak dira erosketa elektronikoen zifrak, % 23,4. Pisu txikiagoa dute salmenta elektronikoen datuek, % 10,0. Bata zein bestea jaitsi egin dira aurren, % 0,2 eta % 0,4, hurrenez hurren.

1. grafikoa: 2013ko salmenta elektronikoak, erabilitako bitartekoaren arabera (%)




Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI) Enpresak

Erosketa elektronikoak egin diren bitartekoari dagokionez, erosketen % 42,9 posta elektronikoz egin dira, % 31,3 web orrien bidez eta gainerako % 25,8 datu elektronikoaren elkartrukearen eta bestelako sareen bidez. Salmenta elektronikoak, berriz, honela banatzen dira: % 48,0 datu elektronikoaren elkartrukearen bidez, % 26,7 posta elektronikoaren bidez eta % 25,3 web orriaren bidez.

Merkataritza elektronikoko salmenten bezero motari dagokionez, 2013an, salmenta elektronikoaren % 82,8 beste enpresa batzuetara bideratu da (B2B merkataritza), % 15,8 kontsumitzaile partikularretara (B2C) eta gainerako % 1,4 beste erosle batzuetara, administrazio publikoak (B2G), kasu.

2. grafikoa: 2013ko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI) Enpresak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); datu-bankua